



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2008ko otsailaren 26a, asteartea.

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASIERA: 19:05

BUKAERA: 19:35

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai zerrenda irakurri aurretik, alkateak hartzen du hitza eta proposatzen du mahai gainean uztea bigarren aztergaia, Munto sektoreko plan partzialaren behin betiko onarpenari dagokiona.

Alkateak dio, nahiz eta ziurtatuta eduki plan partzial hori behin betikoz onartzeko gehiengo absolutua, borondate ona erakutsi nahi duela, ikusita zinegotzi batzuk eta beste kolektibo batzuk argibideak eskatu dituztela plan partzialaren tramitazioari dagozkion hainbat kontu formal eta juridikori buruz eta denbora gehiago eskatu dutela planaren espediente administratiboa arretaz aztertzeko.



Alkateak adierazten du zazpi hilabete pasa direla oraingo agintaldi hau hasi zenetik eta, bere ustez, Udalbatzarra osatzen duten alderdi politikoek nahiko denbora izan dutela Munto sektoreko plan partzialaren espedientea arretaz aztertzeke eta, egoki irudituz gero, argibideak eskatzeko; baina, hala ere, gaia mahai gainean uztea proposatzen duela; proposatzen du datorren otsailaren 28an (osteguna) Hirigintza batzorde informatzailearen bilkura berezia egitea 18:30ean, gai bakarra aztertzeke: plan partzial horren tramitazioa dela eta sortutako zalantza formal eta juridikoak argitzea; horren ondoren, martxoaren 4an (asteartea) Udalbatzarraren ezohiko bilkura egingo da, 19:00etan, gai bakarra aztertzeke: Munto sektoreko plan partziala behin betikoz onartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

MAHAI GAINEAN UZTEA Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektoreari —Munto— dagokion ekimen pribatuko plan partzialaren behin betiko onarpena.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du eskertzen duela, zintzoki, alkatearen proposamena eta adierazten du, baita ere, Hirigintza batzorde informatzailearen hurrengo bilkura monografiko horretan parte hartzeke aukera izan beharko luketela, udalbatzarra osatzen duten zinegotzietz gain, gaian interes zuzena duten herritarren ordezkariak.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta herritarren parte hartzea eskatzen du Munto sektorearen plan partzialaren espedientearen tramitazioan.

AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2008ko urtarrilaren 29an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektoreari (Munto) dagokion ekimen pribatuko Plan Partziala.
- 3.- PSE-EE/PSOE udal talde politikoak aurkeztutako mozioa onartzea, egoki bada. Mozioa emakume langilearen nazioarteko egunari buruzkoa da.
- 4.- Eskariak eta galderak.



1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2008KO URTARRILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2008ko urtarrilaren 29an egindako ohiko bilkurako akta.

3.- PSE-EE/PSOE UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, EGOKI BADA. MOZIOA EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKOA DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

Ante la celebración del Día de la Mujer Trabajadora, fecha emblemática en el calendario para nuestra sociedad, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Orio presenta la siguiente moción para su aprobación en Pleno:

La fecha del día 8 de marzo viene siendo considerada una fecha emblemática en el reconocimiento de los derechos de las mujeres, así como en la reivindicación de la igualdad entre hombres y mujeres como principio básico en la construcción de una sociedad más justa y equilibrada.

La conmemoración de este día debe servir también de reconocimiento al esfuerzo y contribución de todas las mujeres que, a lo largo de la historia, han favorecido el camino hacia la igualdad.

Los avances conseguidos, gracias al impulso de políticas a favor de la igualdad de derechos y oportunidades, y las importantes transformaciones que se han impulsado desde los inicios de nuestra democracia y en el marco constitucional, deben consolidarse. Debemos seguir realizando esfuerzos para que la ley de igualdad sea cumplida en sus términos y en su espíritu, y para mejorarla si cabe, con el fin de que la citada igualdad de derechos y oportunidades entre hombres y mujeres sea una realidad en nuestra sociedad. Y para lograr esos fines,

MOCIÓN

El Ayuntamiento de Orio se compromete a,



1º.- Contribuir a la aplicación y desarrollo de la Ley de Igualdad Efectiva de mujeres y hombres a través de los siguientes compromisos:

- Conseguir la participación de las mujeres en la toma de decisiones sobre asuntos que interesan a toda la ciudadanía.

- Erradicar la inestabilidad, el desempleo y la temporalidad que sigue afectando esencialmente al empleo femenino y a las diferencias retributivas que todavía persisten.

- Favorecer la corresponsabilidad entre hombres y mujeres en el cuidado de las personas y en los trabajos domésticos.

2º.- En la lucha contra la violencia de género, este Ayuntamiento se compromete a:

- Incrementar el rechazo social sobre el agresor a través de la realización de campañas municipales que contribuyan a concienciar y sensibilizar a la ciudadanía sobre estas cuestiones.

- Promover y activar un programa específico de prevención de violencia de género, dirigido especialmente a jóvenes y adolescentes.

- Aumentar y reforzar los mecanismos puestos en marcha para proteger y atender a las mujeres víctimas de la violencia de género.

- Planificar y desarrollar cursos de formación, en colaboración con la CC.AA. dirigidos a todos los profesionales que trabajan en el proceso de erradicación del machismo criminal.

Segidan, alkatearen proposamenez, Udalbatzarrak 2008ko martxoaren 8ko Nazioarteko Eguneko Adierazpen Instituzionalaren berri jasotzen du. Adierazpen Instituzionalak, hitzez hitz, honela dio:

HITZAURREA

Azken udal hauteskundeetatik, emakume zinegotzien eta emakume Alkateen kopurua 879 eta 49koa da, hurrenez hurren, hau da, ordezkari guztien %38,5 eta %19,52, EUDELeK bildutako datuekin bat etorriz.

Kopuruetan izandako igoera horrek bilakaera positiboa erakusten du; horren haritik, bilakaera azkartu egin da, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legean aurrikusitako berdintasun-neurriak lehenengo aldiz aplikatu direnetik. Baina ez dugu ahaztu behar berdintasunaren eskakizunak, eta,



beraz, Euskal Legea bera, gizartean zein instituzioetan, toki mailan eta Europa eta nazioarte mailan, bultzatutako ekintza ugariaren emaitza dela.

Oraindik bide luzea geratzen zaigu egiteko, eta berdintasun politiken helburu nagusietariko bat, oraindik ere, emakumeak erabaki guneetan orain baino gehiago izan daitezen bermatzea da. Aurrerapenak ez dira parekotasunari dagokionez bakarrik neurtzen, eta ez dira ordezkartza-politikara mugatu behar.

Bide horretan, beste herrialde batzuetan tokiko erakundeekin izan dugun lankidetzaren oso probetxugarria dela egiaztatu ahal izan dugu.

Hori dela eta:

1) Kontuan hartu dira:

1.1.- Duela 25 urte, Pisan, toki eta erregio esparruko emakume hautetsien lehenengo Europako Biltzarra egin zen, emakumeak eta Europako Erkidegoa izenburupean.

1.2.- Tokian Tokiko Bizitzaren Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Gutun Europarra egin eta onartu zen 2006an.

1.3.- Europako adierazpen gehiago ere badago erabaki-guneetan gizon eta emakumeen partaidetza bidezkoa izan dadin aldarrikatzeko, esate baterako, 1992ko Atenaseko Adierazpena, emakumezko ministroek, lehenengo ministroek eta estatuburuek sinatutakoa, edo 1996ko Erromako Adierazpena, zeinetan parekotasunaren garrantzia nabarmentzen den demokrazia suspertzeko eta herritarrek erakunde demokratikoetan duten konfidantza areagotzeko baldintza gisa.

2) Aintzat hartu dira:

2.1.- Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarraren helburua da "tokiko eta erregioetako gobernuak animatzea tokiko bizitzaren gizonen eta emakumeen berdintasun printzipioa ezartzeko konpromezu ofiziala har dezaten, bai eta ekintza planak prestatu eta aplikatu ditzaten ere, beren eskumen eta zerbitzuen barruan berdintasuna bultzatzeko, bizitzako esparru guztietan genero berdintasuna bultzatzeko eta, era berean, genero estereotipoei aurre egiteko eta genero diskriminazioaren kontra borrokatzeko".

2.2.- Gaurko dataz, Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra ia 600 udalek sinatu dute Europan, eta horietatik 26 behintzat euskal Udalak dira.



2.3.- Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra praktikan jartzeko Pisan duela gutxi egindako biltzarrean, Europako Udaletako eta erregioetako hainbat agintarik, euskal Udaletakoak barne, berdintasunaren alde toki esparruan egindako ekintzak ebaluatzen eta nabarmentzeko aukera izan da.

2.4.- Arrakasta hori lortzeko behar-beharrezkoa izan da tokian-tokian Udalen elkarteek Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra zabaltzeko eta aplikatzeko pazientzia handiz egindako lana.

3) Hori guztiori dela eta, hauxe da gure adierazpena:

3.1.- Beharrezkoa da Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarra sendotzea, baliabide politiko eta praktiko legez, eta, horregatik, oraindik ere sinatu eta aplikatu ez duten euskal Udalak gonbidatu egin nahi ditugu sinatzera eta bertan adierazitako gomendioak praktikan jartzera.

3.2.- Nahitaezkoa da toki esparruan erabakiak hartzeari dagokionez gizonen eta emakumezkoen artean berdintasunezko ordezkari eta partaidetza bultzatzea, indarrean dauden berdintasun legeak zehatz betetzen direla begiratur eta emakumeek ardurako postuak lortzea eta postu horietan izatea zailtzen duten oztopo objektibo eta subjektiboak kentzeko ahalegina eginez.

3.3. Behar-beharrezkoa da toki esparruan berdintasun politikak sendotuko dituzten neurriak bultzatzea, eta, horretarako, Udalak dira erakunderik garrantzitsuenak, Udalen ekintzek eragin zuzena baitute pertsonen eguneroko bizitzan.

3.4. Nahitaezkoa da Udal esparruan genero politiken zeharkakotasuna areagotzeko bidean aurrera egitea, Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarraren, Emakumezko eta Gizonezkoen arteko Berdintasunerako Euskal Legearen eta esku-hartze programa eta ekintzetan eredugarriak diren beste baliabide batzuen helburu nagusiak gauzatu ahal izateko berdintasun planak egitea bultzatuz.

3.5. Funtsezkoa da, Emakume eta Gizonezkoen arteko Tokiko Bizitzaren Berdintasunerako Gutun Europarrak gomendatzen duenez, jabeak politikak diseinatzea, emakumeen eskari eta beharrezkoak hobeto ordezkatzeko egon daitezkeen, elkarte mugimendutik, Berdintasun Kontseiluetatik edo beste parte-hartze organo batzuetatik dagokien protagonismo guztia emanaz.

Ondoren, PSE-EE/PSOE udal talde politikoak aurkeztutako mozioa bozkatzeko da eta emaitza honako hau da: aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Garcia (EB-B/Aralar), Iturain (EB-B/Aralar),



Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**.

Udalbatzarrak, beraz, honako hau **ERABAKITZEN DU: ONARTZEA** PSE-EE/PSOE udal talde politikoak Emakume Langilearen Eguna dela eta aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Karmele Belasko zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta honakoa adierazten du, bere talde politikoak emandako kontrako botoa azaltzeko:

1.- Mozioa gaztelaniaz bakarrik aurkeztu da eta, udal ordenantzek agintzen duten bezala, euskarak errespetua merezi du udal bizitzan eta udal harremanetan. Kontuan hartuta mozio mota hau urtero aurkeztu dela, EAE-ANVk uste du zinegotzi sozialistak Udal Euskara Zerbitzua erabili behar duela, mozioa euskarara itzultzeko eta badela garaia zinegotzi sozialistak euskararen erabilerarekin dauzkan arazoak gainditzeko.

2.- Nabarmena da mozioaren azalpen zatiak daukan kutsu elektoralista. Mozioaren gaia egoki tratatu behar da eta daukan garrantzia eman behar zaio. Lan prekarietatea, indarkeria sexista, eskubideen bortxaketa eta abar emakumeek egunero jasaten dituzten arazoak dira eta EAE-ANV ez du nahi gai horien erabilera elektoralista egin dadin.

3.- Estatu espainolak egindako lege erreformarekin aurrerapauso batzuk eman badira ere, indarrean dauden botere faktikoek (eliza, elite atzerakoia...) kontserbadoreen eta antidemokraten aldeko apustua egin dute. Botere faktiko horiek, gobernuan dagoen alderdia edozein dela ere, libre dute bidea presio mekanismoak erabiltzeko eta emakumeen eskubideen bortxaketa sistematikoari eusteko. Hori frogatzen dute, besteak beste, orain dela bi hilabete egindako manifestazio ultra kontserbadoreak, azken atxiloketek, klinika pribatu abortisten kriminalizazioak edota emakumeak justizia epaitegien aurrean deklaratzera deitu izanak, orain urtebete ustez abortatu egin izanagatik.

4.- PSOEko gobernuak hainbat neurri hartu ditu (indarkeria sexista desagerrarazteko legea, homosexualen arteko ezkontza eskubidea...), baina ez du jo arazoaren sustraietara eta gaur egun, oraindik ere, bere horretan segitzen dute arazoek eta eskubideen bortxaketek. Sexuen arteko erlazio hierarkikoek garbi erakusten dute emakumeen menpetasun emozional eta ekonomikoa.

5.- Aurrekoaren argitan, martxoaren 8a gertu dagoela eta, EAE-ANV udal taldeak honako hau eskatzen du:

a) Alderdi politiko guztiei, hitz ederrak alde batera utzi eta oinarrizko neurriak hartzea, emakumeen benetako arazoei aurre egiteko, alderdikeria eta hipokresien



gaintik. Kontuan hartuta hauteskunde orokorrak martxoaren 9an izango direla, ez egitea martxoaren 8aren erabilera alderdikoia eta entzutea mugimendu feministen errebindikazioak.

b) Kontuan hartzea Euskal Herriko Emakumeen Eskubideen Gutuna, datozen bi urteotan adostuko dena Euskal Herriko hainbat emakumeren artean. Gutun horretan emakumeek ahalegina egingo dute beren eskubideak identifikatu eta zerrendatzeko eta, beraz, eskubide horiek babesteko neurriak martxan jartzea eskatzen dute.

Joan den igandean, Emakumeen Mundu Ibilaldirako Euskal Herriko Plataformaren ordezkariak dokumentua aurkeztu zuten, Euskal Herrian bizi diren emakumeen eskubideei buruzkoa.

Euskal Herriko plataforma 40 sustatzailek osatzen dute: Bilgune Feminista, Emakume Internazionalistak, ELA, LAB, STEE-EILAS, ESK, EHNE, CCOO sindikatuko emakumeak eta beste batzuk.

c) Eskatzen dute udal batzordeetan eztabaidatzea, sustatzaileekin eta herritarrekin batera, Berdintasun Legea eta emakumeei dagozkien gaiak.

Segidan, Emakumearen Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen Instituzionala bozkatzeko da, eta emaitza honako hau da: aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Garcia (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Iturain (EB-B/Aralar), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**.

Udalbatzarrak, beraz, honako hau **ERABAKITZEN DU: ONARTZEA** 2008ko martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunari buruzko Adierazpen Instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,